# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 1499

*76/2021 DEKRETUA, martxoaren 2koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailetako eta organismo autonomoetako behin-behineko langileen lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 14. artikuluan ezartzen duenez, lanpostuen zerrendek barnean hartu beharko dituzte aurrekontuz hornituta dauden guztiak, funtzionarioentzat, langile lan-kontratudun finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak bereizita. Xedapen hori betetzeko, 44/2007 Dekretua argitaratu zen (44/2007 Dekretua, martxoaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartu zituen dekretua aldatzekoa). Dekretu horrek onartu zituen, hain zuzen ere, behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendak, eta apirilaren 19ko 92/2005 Dekretua ordezkatu zuen, zeina deuseztatu egin baitzen 2006ko urtarrilaren 12an Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak emandako epaiaren bitartez. Ordutik hona, zenbait aldiz aldatu da aipatutako dekretu hori, eta, egun, apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartutako behin-behineko langileen lanpostuen zerrenda dago indarrean, egin zaizkion aldaketak barnean hartuta.

Lanpostuen zerrendak dira administrazioko barne-egiturak antolatzeko baliabideak. Beraz, aldian-aldian, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetzen diren eta aldeko ebazpena jasotzen duten aldaketak sartu behar dira lanpostuen zerrendetan, Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakian aurreikusitakoa betetzeko (erabaki horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura dauden behin-behineko langileen erregimen juridikoaren arautze orokorra eta estrukturalari buruzko proposamena), eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluari dagokionez.

Lanpostuen zerrenda honetan hauek daude zehaztuta: lanpostuen funtsezko ezaugarriak; lanpostuok betetzeko eskatutako eskakizunak, eta postuen ordainsari-erregimenari dagozkion zehaztapenak. Horretarako, apirilaren 12ko 78/2005 Dekretuaren 5.4 artikuluak xedatutakoa bete da –dekretu horretan daude araututa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta organismo autonomoetako lanpostuen zerrendak–, urtarrilaren 16ko 6/2007 Dekretuak emandako idazkeran, zeinak, batetik, betetzen baitu 2005eko azaroaren 18ko Epaiaren epaitzan aurreikusitakoa, eta, bestetik, bateratzen baititu uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 15. artikuluko eta Gobernu Kontseiluaren 2002ko uztailaren 30eko Erabakiko aurreikuspenak.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira, eta sailen egitekoak eta jardun-arloak finkatzen. Hori dela eta, kasu batzuetan, aldatu egin behar izaten dira sailei atxikitako behin-behineko langileen lanpostu-zerrendak, dekretu horren arabera sail bakoitzari dagozkion betebeharrei aurre egiteko.

Horrenbestez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 2ko bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrendetan egindako aldaketak onartzea. Zerrenda horiek dekretu honen eranskinean daude, eta apirilaren 9ko 189/2013 Dekretuaren bidez onartu ziren.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

I. eranskinean zerrendatutako aldaketek izan ditzaketen ondorioek 2020ko irailaren 8tik aurrerako atzeraeragina izango dute.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

II. eranskinean adierazitako aldaketek izan ditzaketen ondorioak dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrara.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Dekretu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 2an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

I. ERANSKINA, MARTXOAREN 2KO 76/2021 DEKRETUARENA

*ANEXO I AL DECRETO 76/2021, DE 2 DE MARZO*

Amortizatu:

| Kodea | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Saila | H.E. | Ordainsaria | Lan. Mot. | Sailkapena | Dedikazio erregimena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5304 | 1 | Garraioetako eta azpiegituretako aholkularia | Ekonomia Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |

Amortizar:

| Cod. | Dotación | Denominación del puesto | Departamento | P.L. | Retribución | Tip. pue. | Clasificación | Régimen dedicación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5304 | 1 | Asesor/a en materia de transportes e infraestructas | Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |

Sortu:

| Kodea | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Saila | H.E. | Ordainsaria | Lan. mot. | Sailkapena | Dedikazio Erregimena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5312 | 1 | Ingurumenaren arloko aholkularia | Ekonomia Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |

Crear:

| Cod. | Dotación | Denominación del puesto | Departamento | P.L. | Retribución | Tip. pue. | Clasificación | Régimen dedicación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5312 | 1 | Asesor/a en materia de medio ambiente | Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |

Aldatu:

| Kodea | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Saila | H.E. | Ordainsaria | Lan. mot. | Sailkapena | Dedikazio erregimena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5254 | 1 | Sailaren komunikazioko aholkularia | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |

Modificar:

| Cod. | Dotación | Denominación del puesto | Departamento | P.L. | Retribución | Tip. pue. | Clasificación | Régimen dedicación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5254 | 1 | Asesor/a de comunicación del departamento | Gobernanza Pública y Autogobierno | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |

**Klabeak:** **Claves**

| Lanpostu mota: | | tipo de puesto | |
|---|---|---|---|
| N | Normalizatua | N | Normalizado |
| B | Berezitua | S | Singularizado |
| | | | |
| **Sailkapena** | | **Clasificación** | |
| SP | Sektoreko postua | AS | Puesto Sectorial |
| EP | Egiturako postua | ES | Puesto Estructural |
| | | | |
| **Dedikazio erregimena** | | **Regimen dedicación** | |
| 1 | Dedikazio berezia % 10 | 1 | Dedicación especial 10 % |
| 2 | Dedikazio berezia % 20 | 2 | Dedicación especial 20 % |
| % 100 Lanaldi osoa | | 100 % Jornada completa | |

II. ERANSKINA, MARTXOAREN 2KO 76/2021 DEKRETUARENA

*ANEXO II AL DECRETO 76/2021, DE 2 DE MARZO*

Amortizatu:

| Kodea | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Saila | H.E. | Ordainsaria | Lan. mot. | Sailkapena | Dedikazio erregimena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5166 | 2 | Azterlan eta programetako aholkularia | Lana eta Enplegua | 3 | Zuzendaria | N | SP | % 100 |
| 5291 | 1 | Lan arloko aholkularia | Lana eta Enplegua | 3 | Sailburuordea | B | SP | % 100 |
| 5297 | 1 | Informazioko eta dokumentazioko aholkularia | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 3 | 26 | B | SP | % 100 |
| 5298 | 1 | Berrikuntzako aholkularia | Lana eta Enplegua | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |

Amortizar:

| Cod. | Dotación | Denominación del puesto | Departamento | P.L. | Retribuciones | Tip. puesto | Clasificación | Régimen dedicación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5166 | 2 | Asesor/a de estudios y programas | Trabajo y Empleo | 3 | Director/a | N | AS | 100 % |
| 5291 | 1 | Asesor/a en materia de trabajo | Trabajo y Empleo | 3 | Viceconsejero/a | S | AS | 100 % |
| 5297 | 1 | Asesor/a en materia de información y documentación | Gobernanza Pública y Autogobierno | 3 | 26 | S | AS | 100 % |
| 5298 | 1 | Asesor/a de modernización | Trabajo y empleo | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |

Sortu:

| Kodea | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Saila | H.E. | Ordainsaria | Lan. mot. | Sailkapena | Dedikazio erregimena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5230 | 7 | Erakundearteko harremanetarako aholkularia | Lana eta Enplegua | 3 | Zuzendaria | N | SP | % 100 |
| 5260 | 3 | Teknologia berrietako eta informazioaren gizarteko aholkularia | Lana eta Enplegua | 3 | Zuzendaria | N | SP | % 100 |
| 5308 | 2 | Analisiko eta arau garapenerako aholkularia | Lana eta Enplegua | 3 | Sailburuordea | N | SP | % 100 |
| 5313 | 1 | Gizarte-trantsizio proiektuak koordinatzeko aholkularia | Lehendakaritza | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |
| 5314 | 1 | Nazioarteko harremanetarako aholkularia | Lehendakaritza | 3 | Zuzendaria | B | SP | %100 |
| 5315 | 1 | Berpiztu programa sustatzeko aholkularia | Lehendakaritza | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |
| 5316 | 1 | Segurtasun publikoaren arloan berrikuntza eta modernizazio aholkularia | Segurtasuna | 3 | 28 | B | SP | % 100 |
| 5317 | 1 | Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren jardun-arloko politika publikoak koordinatzeko aholkularia | Segurtasuna | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |
| 5318 | 1 | Saileko koordinazio eta politikako aholkularia | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 3 | Zuzendaria | B | SP | % 100 |

Crear:

| Cod. | Dotación | Denominación del puesto | Departamento | P.L. | Retribución | Tip. pue. | Clasificación | Régimen dedicación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5230 | 7 | Asesor/a en relaciones institucionales | Trabajo y Empleo | 3 | Director/a | N | AS | 100 % |
| 5260 | 3 | Asesor/a en nuevas tecnologías y sociedad de la información | Trabajo y Empleo | 3 | Director/a | N | AS | 100 % |
| 5308 | 2 | Asesor/a de analisis y desarrollo normativo | Trabajo y Empleo | 3 | Viceconsejero/a | N | AS | 100 % |
| 5313 | 1 | Asesor/a para la coordinación de proyectos de transición social | Lehendakaritza | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |
| 5314 | 1 | Asesor/a para las relaciones internacionales | Lehendakaritza | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |
| 5315 | 1 | Asesor/a para el impulso del programa berpiztu para la reactivación económica y el empleo | Lehendakaritza | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |
| 5316 | 1 | Asesor/a en materia de innovación y modernización en seguridad pública | Seguridad | 3 | 28 | S | AS | 100 % |
| 5317 | 1 | Asesor/a para la coordinación de las políticas públicas del área del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad | Seguridad | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |
| 5318 | 1 | Asesor/a en coordinación y política departamental | Gobernanza Pública y Autogobierno | 3 | Director/a | S | AS | 100 % |

Aldatu:

| Kodea | Dotazioa | Lanpostuaren izena | Saila | H.E. | Ordainsaria | Lan. mot. | Sailkapena | Dedikazio erregimena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5105 | 1 | Ajuria Enea eta Lehendakaritzako mantentze-lanetako arduraduna | Lehendakaritza | 3 | 26 | B | EP | % 100 |
| 5129 | 1 | Etxeko lanetako laguntzailea | Lehendakaritza | 1 | 16 | B | EP | % 100 |
| 5255 | 1 | Komunikazioko eta komunikabideekiko harremanetako aholkukaria | Gobernantza Publikoa eta Autogobernua | 1 | 28 | N | SP | % 100 |
| 5308 | 1 | Analisiko eta arau garapenerako aholkularia | Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa | 3 | Sailburuordea | N | SP | % 100 |

Modificar:

| Cod. | Dotación | Denominación del puesto | Departamento | P.L. | Retribución | Tip. pue. | Clasificación | Régimen dedicación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5105 | 1 | Responsable de mantenimiento de Ajuria Enea y Lehendakaritza | Lehendakaritza | 3 | 26 | S | ES | 100 % |
| 5129 | 1 | Asistente en tareas domésticas | Lehendakaritza | 1 | 16 | S | ES | 100 % |
| 5255 | 1 | Asesor/a en comunicación y relación con los medios | Gobernanza Pública y Autogobierno | 3 | 28 | N | AS | 100 % |
| 5308 | 1 | Asesor/a de analisis y desarrollo normativo | Turismo, Comercio y Consumo | 3 | Viceconsejero/a | N | AS | 100 % |

**Klabeak:** **Claves**

| Lanpostu mota: | | Tipo de puesto | |
|---|---|---|---|
| N | Normalizatua | N | Normalizado |
| B | Berezitua | S | Singularizado |
| | | | |
| **Sailkapena** | | **Clasificación** | |
| SP | Sektoreko postua | AS | Puesto Sectorial |
| EP | Egiturako postua | ES | Puesto Estructural |
| | | | |
| **Dedikazio erregimena** | | **Regimen dedicación** | |
| 1 | Dedikazio berezia % 10 | 1 | Dedicación especial 10 % |
| 2 | Dedikazio berezia % 20 | 2 | Dedicación especial 20 % |
| % 100 Lanaldi osoa | | 100 % Jornada completa | |